

Antonio Ventura / Teresa Novoa
Bi otso zuri
Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide
Ibaizabal
Zaragoza, 2004

Otso onberak

Antonio Ventura madrildarra kultur eragile polifazetikoa da: irakasle gisa hasi zen literatura lantzen, *Babar* haur literaturako aldizkari ezaguna zuzendu zuen gero, eta gaur egun Anaya argitaletxeko haur eta gazte literatura saileko argitalpen zuzendaria da; eta, gure interesetarako axola handien duena, noizean behin haur literaturako obraren bat argitaratzen du.

Bi otso zuri haur txikientzako album ilustratua da, kontu handiz prestatua eta burutua. Testu oso laburrak izanik ere, guztiz iradokigarriak dira, esaten dutenagatik ez ezik, isiltzen dutenagatik ere; elipsiak, izan ere, oso garrantzitsuak baitira istorio xume erakargarrian: bi otso dabilta mendi elurtuan barrena, ibilbide nekagarrian, uhuri baten iturriaren peskizan. Azkenean aurkitu dute: otseme zauritu bat da, otsokumea aldean duela. Sendatzen lagundu eta badoaz berriro mendi elurtuan barrena.

Hain istorio sinplea arrasto fisiko zein literarioen bitartez, ekonomiarik handienarekin kontatua dago, irudien laguntza ezin estimatuzkoa medio. Esaterako, otsoak aurkezteko hauxe dio: “Zortzi pauso, elurrezko maindire zurian aurrera”. Eta irudiak pauso horiek beste ezer ez digu erakusten. Aurrerago, otsoen ibilbidearen amaiera aldera, “Zerua, garbi-garbi, izartsu dago; ilargia, ilgoran”; otseme zauritua aurkitu ondoren, elipsi eder baten bidez, berriz, “Ilargiak argi egiten dio haranari”. Horixe soilik ilargiari buruz. Baina irudigile konplizeak ilargi betea paratu du irudiaren erdi erdian: bi aste igaro dira, eta otsemea sendaturik dago. Bukaerako esaldia, azkenik, erabatekoa da: “Hamasei pauso, elur zurian aurrera”.

Ez dira hauek Teresa Novoa ilustratzaile madrildarrak marrazten dituen lehen otsoak, baina bai, beharbada, otsorik onberenak. Halaxe agertzen dira lerro soil batzuez sortutako otso zuri luzexkak, hortzik txikiena ere erakutsi gabe, begiak bina puntu beltz. Itzulpena Juan Kruz Igerabide idazle eta itzultzaile nekaezinarena da, zaindua, haur txikien ulermena galaraziko duen hitz bat ere itzuri ez zekion adi ibili izan balitz bezala.

Manu Lopez Gaseni